



HIZKUNTZ ESKUBIDEEN  
**BEHATOKIA**

---

# **Adin txikikoen zigor epaitegiak eta hizkuntz eskubideak Hego Euskal Herrian, 2001ean**

---

**1. txosten**

**berezitua**

---

Txosten honetan agertzen diren datuez, ondorioez zein informazioaz, orokorrean, ballatu nahi izanez gero, arren, aipatu iturria:

**Hizkuntz Eskubideen Behatokia, "Adin txikikoen zigor epaitegiak eta hizkuntz eskubideak Hego Euskal Herrian, 2001ean", 1. txosten berezitua araitaratu aabea. Euskal Herria. 2002.**

---

*Izenburua:* Adin txikikoen zigor epaitegiak eta hizkuntz eskubideak Hego Euskal Herrian, 2001ean.

*Mota:* 1. txosten berezitua.

*Egilea:* Hizkuntz Eskubideen Behatokia

*Legezko Gordailua:* NA – 1674/2002.

© HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA  
Marcelo Zelaieta, 75. A-3 eraikina, 25. bulegoa.  
31014 – Iruñea  
Euskal Herria  
2002ko urtarrila

## Aurkibidea

1. Hitzaurrea
2. Adin txikikoen zigor epaitegietako hizkuntz eskubideen urraketen inguruko salaketak 2001 urtean
3. Adin txikikoen zigor epaitegietan izandako hizkuntz eskubideen urraketen nondik norakoak
4. Hizkuntz gaitasunari buruzko datuak
  - 4.1. Datu demolinguistikoak herrialdeka
  - 4.2. Itzulpen datuak
  - 4.3. Adin txikikoen zigor epaitegietako langileriaren hizkuntz ezagutza
5. *Adin Txikikoen Erantzukizun Penala arauzkotzeko 5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa. Azterketa laburra*
6. Adin txikikoen legearen erreforma
7. Adin txikikoen zigor epaitegien eta sistema judicial espainiarraren eraientza: iruzkin laburra hizkuntzari dagokionez
8. Ondorioak

## 1. Hitzaurrea

*Hizkuntz Eskubideen Behatokiak* Euskal Herriko herritarren hizkuntz eskubideak babestea, defendatzea eta errespetaraztea du ardura, eta bere lana Euskal Herriko hizkuntz eskubideen inguruko datu zehatzak biltzean oinarritzen du.

'Adin txikikoen zigor epaitegiak eta hizkuntz eskubideak Hego Euskal Herrian, 2001ean' izeneko txostena alor jakin batean hizkuntz eskubideen egoera aztertzeko txostena da, *Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren* eta Abokatu Euskaldunen Sindikatuaren arteko elkarlanean prestatua.

Txosten honen eremua Hego Euskal Herriko herrialdeak dira (Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Komunitatea), hori baita adin txikikoen gaineko prozedura penala arautu eta aztertu dugun Estatu mailako legearen eremua.

*Behatokia* lanean hasi zenez geroztik herritarren kexa, galdera eta eskakizunetan justiziaren alorra agertu zen nabarmendua, alor horretan bereziki larriak eta sistematikoak izaten baitira hizkuntz eskubiden urraketak.

Adin txikikoen berezitasuna kontuan hartuta, legeak babes eta arreta handiagoa aurreikusi du bere prozeduretan, garbi baita adin txikikoen edozein eskubide urratzeak

zehaztaperen larrigarriagoa duela. Adin txikikoak dira, bestalde, Hego Eukal Herrian demolinguistikoki euskaldun portzentaia handien biltzen duen herritar taldea eta beraz, ikuspegi prebentibo batetik lehentasun handikoa. Hori guztiari erreparatu dio *Hizkuntz Eskubideen Behatokiak* adin txikikoen zigor epaitegiatako prozeduretako hizkuntz eskubideen egoera aztertu eta txosten monografikoa egiteko.

Txostenaren ondorio nagusia da Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean dauden adin txikikoen zigor epaitegietan ez direla hizkuntz eskubideak inolaz ere bermatzen, eta horrek, adin txikikoei dagokion legedi penala azterturik, legearen helburuak berak ukitu eta kaltetzen dituela.

Txosten honetan *Hizkuntz Eskubideen Behatokiak* ez ditu soilik agerian utzi nahi adin txikikoen zigor epaitegietan hizkuntz eskubideak betetzeko dauden gabeziak. Txosten honek, esan bezala, xede prebentiboa du eta eskubide horien bermea lortzeko proposamenak ere biltzen ditu. Jendaurreko aurkezpen hau eginda, Behatokiak justizia alorrean eskubideen bermea beren eskuetan dituzten administrazio eta erakunde ezberdinei aurkeztuko dizkie, txosten honek bildu dituen datuak, egin duen diagnosia eta egoera hobetzeko luzatutako proposamenak, bai eta eskatu ere hizkuntz eskubideak eta legeak ezarritakoa bermatzeko bideak jar ditzaten.

---

## 2. Adin txikikoen zigor epaitegietakoz hizkuntz eskubideen urraketen inguruko salaketak 2001 urtean

Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean Adin Txikikoen Erantzukizun Penala arautzen duen 5/2000 Lege Organikoa, urtarilaren 12koa, onartu eta bere egikaritzean, 2001 urtean, Hizkuntz Eskubideen Behatokiari hainbat letraduk luzatutako kexak dira txostena prestatzeko erabili ditugun datu enpirikoak.

Adin txikikoen intimitatea babestearren, ondorengo kasuetan beraien inzialak besterik ez ditugu aipatuko. Kasu guztietan, adin txikikoek igaro beharreko prozedura penaletan beraien hizkuntz eskubideak urratu izana da kexaren arrazoa.

Entzutegi Nazionaleko prozeduretan ez beste guztietan itzulpen zerbitzuaz ballatu dira. Entzutegi Nazionaleko kasuetan, berriz, prozedurak gaztelania hutsez izan dira.

### **Aztertutako salaketak:**

#### 1.- H.F.U. gaztea.

*Gaia:* Desordena publikoak.

*Prozedura:* 223/01 erreforma espedientea.

*Epaitegia:* Gipuzkoako adin txikikoen zigor epaitegia.

*Epaiketa eguna:* 01-10-31.

#### 2.- H.Z.S. gaztea.

*Gaia:* Desordena publikoak.

*Prozedura:* 223/01 erreforma espedientea.

*Epaitegia:* Gipuzkoako adin txikikoen zigor epaitegia.

*Epaiketa eguna:* 01-10-31.

#### 3.-E.L.S. gaztea.

*Gaia:* Desordena publikoak.

*Prozedura:* 223/01 erreforma espedientea.

*Epaitegia:* Gipuzkoako adin txikikoen zigor epaitegia.

*Epaiketa eguna:* 01-10-31.

#### 4.-X.C.I gaztea.

*Gaia:* Desordena publikoak.

*Prozedura:* 223/01 erreforma espedientea.

*Epaitegia:* Gipuzkoako adin txikikoen zigor epaitegia.

*Epaiketa eguna:* 01-10-31.

#### 5.-O.G.B. gaztea.

*Gaia:* Desordena publikoak.

*Prozedura:* 223/01 erreforma espedientea.

*Epaitegia:* Gipuzkoako adin txikikoen zigor epaitegia.

*Epaiketa eguna:* 01-10-31.

#### 6.-J.P.M. gaztea.

*Gaia:* Desordena publikoak.

*Prozedura:* 223/01 erreforma espedientea.

*Epaitegia:* Gipuzkoako adin txikikoen zigor epaitegia.

*Epaiketa eguna:* 01-10-31.

7.- N.A.I. gaztea.

*Gaia:* Desobedientzia.

*Prozedura:* 129/01 erreforma espedientea.

*Epaitegia:* Gipuzkoako adin txikikoen zigor epaitegia.

*Epaiketa eguna:* 01-09-05.

8.-A.B.Z. gaztea.

*Gaia:* Koakzioak.

*Prozedura:* 25/01 erreforma espedientea.

*Epaitegia:* Gipuzkoako adin txikikoen zigor epaitegia.

*Epaiketa eguna:* 01-10-31.

9.-B.P.O. gaztea.

*Gaia:* Kalte hutsegitea.

*Prozedura:* 180/01 erreforma espedientea.

*Epaitegia:* Gipuzkoako adin txikikoen zigor epaitegia.

10.- A.Z.U. gaztea.

*Gaia:* Atentatua.

*Prozedura:* 56/01 erreforma espedientea.

*Epaitegia:* Gipuzkoako adin txikikoen zigor epaitegia.

11.- I.I.L. gaztea.

*Gaia:* Atentatua.

*Prozedura:* 56/01 erreforma espedientea.

*Epaitegia:* Gipuzkoako adin txikikoen zigor epaitegia.

12.- A.D. gaztea.

*Prozedura:* 79/01 aldi baterako espedientea.

*Epaitegia:* Gipuzkoako adin txikikoen zigor epaitegia/Probintzia entzutegia.

13.- O.E. gaztea

*Gaia:* Lapurreta

*Prozedura:* 70/01 erreforma espedientea.

*Epaitegia:* Gipuzkoako adin txikikoen zigor epaitegia

14.- U.G. gaztea.

*Prozedura:* 7/01 baterazlea.

*Epaitegia:* Gipuzkoako adin txikikoen zigor epaitegia.

15.- A.E. gaztea.

*Prozedura:* 80/01

*Epaitegia:* Gipuzkoako adin txikikoen zigor epaitegia.

16.- O.E. eta I.R. gazteak

*Prozedura:* 3/2001 erreforma espedientea

*Epaitegia:* Entzutegi nazionalako adin txikikoen epaitegi zentrala

3. **Adin txikikoen zigor epaitegietan izandako hizkuntz eskubideen urraketen nondik norakoak**

- Jakinarazpenak, oro har, adin txikikoak edota bere ordezkari legalak besterik adierazi ezean, gaztelania hutsez luzatzen dira.
- Prozedura hasitakoan, adin txikikoak edota bere ordezkari legalak euskaraz jardun arren, oso arrunta izaten da jakinarazpen, ebazpen, erabaki, auto, epai eta bestelako agiriak gaztelania hutsez jasotzea.
- Euskaraz jardunez gero eta probidentzia, auto edo epaiak euskaraz luzatuko badira, jakinarazpen epeak luzatu egiten dira, eta atzerapenak dira nagusi.
- Oro har, Ministerio Fiskalaren Adin Txikikoen Ataleko Adin Txikiko Fiskalaren aurrean egin beharreko deklarazioak gaztelaniaz baizik ez dakien fiskal baten aurrean izaten dira. Horrek adin txikikoak gaztelaniaz aritzera behartzen ditu. Adin txikikoak euskaraz jardun nahi izanez gero, itzultzaileen bidez egin behar du deklarazioa. Horrek guztiak auzitan jartzen du *Adin Txikikoen Erantzukizun Penala arautzeko 5/2000 Lege Organikoak, urtarilaren 12koak, Zioen Azalpenetako -II. Atala-* bederatzigarren puntuan ministerio fiskalaren funtzioari buruz dioena, hau da: ministerio fiskala izango dela adin txikikoen eskubideen defentsa burutuko duena, beraien interesik gorenaren alde eginez. Era berean kontuan izan behar dugu, legearen 17. artikulua arabera, adin txikikoari egotzi zaizkion egitateen berri hizkuntza **“argi eta ulergarrian”** eman behar zaiola. Ministerio fiskalak

itzultzaileen bidez jardun behar duenean, bere zio nagusia den adin txikikoaren interesen alde jokatzeko ez du ziurtatzen; are gehiago, ulergarritasunaren funtsezkotasuna eta adin txikikoen interesen defentsaren aldeko jarrera zalantzan uzten ditu.

- Talde teknikoarekin izaten diren elkarrizketa pribatuak ministerio fiskalak instrukzio fasean talde horri eskatutako txostena prestatzeko izaten dira, eta itzultzaileen parte hartzea eskatzen dute. Adin txikikoaren letratuari elkarrizketa pribatu horietan parte hartzea bera ukatzen zaio, baina elkarrizketa pribatu horietan itzultzailea egoten da, ezein legek arauturik ez dagoen jardunbide bati jarraikiz. Talde tekniko horrek prestatu beharreko txostenak adin txikikoaren egoera psikologiko, hezkuntzako eta familiar-tekoari buruzkoa behar du izan, bai eta haren ingurune sozialari buruzkoa eta legeak jasotako edozein neurri ezartzeko zehazki aldagai adierazgarri buruzkoa ere. Talde teknikoak, gainera, proposamenak luzatzen ditu adin txikikoaren gainean, bai aurrera eraman daitezkeen eskuhartze soziohezitzaileari buruzkoak, bai biktimarekin adin txikikoak izan dezakeen jardura erreparatzaile edo adiskidetzekoari buruzkoak. Talde teknikoak adin txikikoen atxiloketa egoerari buruz edota kautelazko neurriei buruz jardungo du, halakorik badago. Espedienteari jarraitzea edo artxibatzeari buruzko iritzia agertzea ere talde teknikoari dagokio. Beraz, txosten horrek berebiziko garrantzia hartuko du, izan ere,

ingurune soziala eta errealitate psikologikoa aztertutakoan, adin txikikoari ezar dakizkiokeen neurriez aritzen baitira talde teknikoko adituak Talde teknikoak eginiko proposamena epaiketa egunean berretsi egingo dute. Txosten horrek, esan bezala, berebiziko garrantzia hartuko du eta elkarrizketetan izango du oinarria. Elkarrizketa horietan hizkuntza funtsezkoa da, hizkuntzaren bidez familiarterko harremana eta giroa, norberaren egoera pertsonala, lagun artekoa, ikasketekiko jarrera eta abar aztertuko baitute. Azkenean, azterketa horretatik, adin txikikoaren egoera pertsonal eta psikologiko afektiboari buruzko ondorio batzuk atera eta, horrekin, haren interesik gorena egokien defendatzen saiatuko dira.

Esan bezala, aipatu kasu guztietan talde teknikoko kideek txostenak prestatzeko erabili dituzten oinarrizko elkarrizketa pribatuak itzultzaileen bidez egin izan dituzte, eta elkarrizketa pertsonal horietan hizkuntzak eraginik baduela agerian uzten duten adibide garbiak azaldu dira. Horietako bat, honako hau, hezitzaileak berak elkarrizketa pribatu batetik prestatutako txostenean aipatua agertzen da:

*“B.P. acude a la entrevista putualmente, adecuadamente vestido y aseado. Su nivel de comprensión y expresión verbales son las adecuadas para su edad. **Presenta dificultades de dicción y pobreza en el castellano, viéndose***

**obligado a expresarse en algún momento en euskera. No parece presentar problemas a nivel cognitivo.”**

(Prozedura: 180/01 erreforma espedientea.  
Epaitegia: Gipuzkoako adin txikikoen zigor epaitegia.)

Talde teknikoak adin txikikoaren azterketa psikosoziala prestatu behar badu, eta, horretarako, oinarri nagusia berarekin zein haren gurasoekin izaniko elkarrizketa bada, elkarrizketa adin txikikoaren ama hizkuntzan egiteak berebiziko garrantzia hartzen duela agerian geratzen da, adin txikikoen adierazpenak bere osotasunean jaso eta horietaz jabetu ahal izateko gaztetxo elkarrizketatua zuzenean ulertzea ezinbestekoa da.

- Azkenik, epaiketa bistak eta audientziak, oro har itzultzaileen bidez egiten dira aipatu kasu guztietan. Horietan, ez ministerio fiskalak, ez adin txikiko epaileak, ez idazkariak ez eta talde teknikoko kideak ere ez dira elebidunak<sup>1</sup>.
- Kasu batzuetan adin txikikoaren gaineko interbentzio judizialak eskuhartze polizial bat izan ohi du, aurrekari

<sup>1</sup> Txosten honetan *elebidun* hitza euskara eta gaztelania hizkuntzak jakiteari dago lotuta Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen legediaren arabera, euskara bertako hizkuntza berezkoa da eta ofiziala gaztelaniarekin batera; Nafarroako Foru Komunitatean euskara eta gaztelania dira hizkuntza berezkoak eta ofizialak, euskara soilik herraldiearen zati batean bada ere. Beraz, txosten honek ez du beste edozein hizkuntzaren gaitasunik kontuan hartu, helburua baitu hizkuntz eskubideen ikuspegitik balorazio juridikoa egitea.

gisa. Legearen 17. artikularen arabera, adin txikiko baten atxiloketan esku hartzen duen autoritate edo funtzionarioak atxiloketa hori adin txikikoa gutxien kaltetzen duen moduan egin beharko du, eta behartuak izanen dira, atxilotu eta berehala, egotzi zaizkion egitateak, atxilotzeko arrazoiak eta dagozkion eskubideak hizkuntza argi eta ulergarri batean jakinaraztera. Halaberean, Legearen azken xedapenetan, hirugarren xedapeneko laugarren puntuan honela dio:

*"El Gobierno, a través del Ministerio de Interior, y sin perjuicio de las competencias de las Comunidades Autónomas, adecuará las plantillas de los Grupos de Menores de las Brigadas de Policía Judicial, con objeto de establecer la adscripción a las Secciones de Menores de las Fiscalías de los funcionarios necesarios a los fines propuestos por esta ley".*

Ez dugu daturik egokitzapen horiek gertatu direnentz ezagutzeko, baina bai, berriz, datuak aipatu kasuetako atxiloketa batzuetan adin txikikoen hizkuntz eskubideak errespetatu ez direla esateko. Beraz, horrek bide ematen digu pentsatzeko egokitzapen horietan hizkuntz irizpideak ez direla kontuan hartu.

#### 4. Hizkuntz gaitasunari buruzko datuak

#### 4.1. Datu demolinguitikoak herrialdeka

Aipaturiko datuek eta egoerak herrialdez herrialdeko euskararen ezagutzaren alderatzea eskatzen dute.

Kontuan izan behar dugu adin txikikoen zigor epaitegien kasuan, epaitegi horien barrutia herrialde osoa dela; beraz, herrialdeko datu demolinguitikoek bat egiten dute adin txikikoen zigor epaitegien barrutien datu demolinguitikoekin. Epaitegi bakoitzak izan dezakeen adin txikiko elebidunen portzentaia azalduko digu.

#### EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOIA

##### Iturri ofiziala:

Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Euskal Kultur Erakundea (1997) *Euskal Herriko Soziolinguistika Inkesta. 1996. Euskal Autonomia Erkidegoa. Euskararen Jarraipena II. 6 or.* Ikerlan horren adin multzoak 10-15 eta 16-24 dira, beraz, hala batu behar izan ditugu. Euskal elebidunak hartu ditugu soilik — euskaraz ongi hitz egiten dutenak—, elebidun hartzaileak ez ditugu hartu euskaldun pasiboak baitira.

**Euskal Autonomia Erkidegoa: 1.778.500 biztanle**

Urte bitarteak	Elebidunen %
10 - 15	40
16 - 24	32

##### Herrialdeka:

<b>Araba</b>	10 - 15	20
	16 - 24	16



<b>Bizkaia</b>	10 - 15	30
	16 - 24	24
<b>Gipuzkoa</b>	10 - 15	66
	16 - 24	54

## NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

### Iturri ofiziala:

Nafarroako Gobernua (1999) *Nafarroako populazioaren estatistika. 1996. Populazioaren banaketa euskararen ezagutzari buruz, 20 eta 21 orrialdeak.* Ikerlan horretan adin multzoak 10-14 eta 15-19 dira, beraz, hala batu behar izan ditugu: 10-19. Euskaldunak hartu ditugu soilik, ia-euskaldunak ez ditugu hartu euskaldun pasiboak baitira.

<b>Nafarroako Foru Komunitatea:</b>		<b>511.898 biztanle</b>
<b>Urte bitarteak</b>		
		Elebidunen %
	10 - 14	18,5
	15 - 19	14,1
<b>Euskararen Legeak ezarritako eremuka:</b>		
	Euskalduneko 10-19 urteko euskaldunak	4.944
	Mistoko 10-19 urteko euskaldunak	5.013
	Ez-euskalduneko 10-19 urteko euskaldunak	615

Euskaldunek adin txikikoen zigor epaitegietan bizi duten egoera aztertu ahal izateko, *Hizkuntz Eskubideen Behatokia* hainbat datu biltzen saiatu da. Datu horiek oso-osorik ez ditugu eskuratzetik izan baina, oro har, adin txikikoen zigor epaitegien egoeraren deskribapena egiteko aski dira:

## 4.2. Itzulpen datuak

Hego Euskal Herrian egindako itzulpenei begiratu gero, euskarazko diligentziak Donostiako adin txikikoen zigor epaitegian eta Bilboko adin txikikoen zigor epaitegian egin dira. Ez lruñean, ez eta Gasteizen ere, ez da kasurik izan.

Kontuan hartu beharrekoa da ondorengo datuak ahozko itzulpenei buruzkoak besterik ez direla, epaitegietako itzulpen zerbitzuek idatzizko datuak ez baitituzte arloka berezituak.

Halaber, gero aipatuko dugun bezala, Gasteizko adin txikikoen arlo penaleko magistratua elebiduna denez, ezin

ziurta daiteke Gasteizen euskara erabiltzeko aukera bermatu ez denik. Aitzitik, inolako itzulpenik —psikologo edo hezitzaileen jardunean, fiskaltzan, epaiketen bista egunean... — ez da izan adin txikikoen epaitegi horretan, beraz, prozeduran zehar euskaraz jardun nahi izan duen adin txikikorik egon ez dela pentsatzea dugu.

Itzulpen datuak (2001eko abenduan Epaitegietako Itzulpen zerbitzuak eskainiak):

- **Donostiako epaitegian** egindako itzulpenak:

Adin txikikoen epaitegia (bistak): 7 itzulpen (epaiketa gehienetan epaitutako gazteak bat baino gehiago izan dira).

Adin txikikoen fiskaltza: 7 itzulpen.

Talde teknikoa (psikologo zein hezitzaile sozialak): 5 itzulpen.

Zazpi bista izan direla eta horietako batzuetan adin txikiko bat baino gehiago, eta batzuetan asko, izan dela kontuan hartuta, ministerio fiskalaren aurrean zein talde teknikoaren aurrean izandako elkarrizketetan, adin txikiko batzuek gaztelaniaz mintzatzeko hautua egin dutela ondoriozta dezakegu.

- **Bilboko epaitegian** egindako itzulpenak:

Adin txikikoen epaitegia (bistak): 2 itzulpen.

Adin txikikoen fiskaltza: 0.

Talde teknikoa (psikologoa zein hezitzaile soziala):

1.

Hemen ere, ministerio fiskalaren aurrean edota talde teknikoaren aurrean euskara erabiltzen duten adin txikikoen kopurua jaitsi egiten dela ikus daiteke.

#### **4.3. Adin txikikoen epaitegietako langileriaren hizkuntz ezagutza**

Adin txikikoen epaitegien langileriaren ezagutzari buruz eskuratu ahal izan ditugun datuak ere ez dira osoak izan:

##### **Euskal autonomia Erkidegoa**

- Oro har, Gasteizko adin txikikoen arlo penaleko epaitegiko **magistratua** izan ezik, beste herrialdeetako adin txikiko magistratuak gaztelanidaun elebakarrak dira, itzultzaileen zerbitzuez baliatu beharrekoak.
- Ministerio **fiskalari** dagokionez ere, hiru herrialdeetako adin txikikoen fiskaltzetan gaztelaniadun elebakarrak daude.

- **Talde teknikoari** buruz datu osorik ez badugu ere, talde teknikoaren beharra izan den lekuetan bederen, talde tekniko horrek itzultze zerbitzua erabilí izan du.
- **Idazkariei** dagokienez, hiru epaitegietako idazkariak gaztelaniadun elebakarrak dira.
- **Ofizial, laguntzaile** eta **agenteei** dagokienez, ez dugu epaitegi bakoitzeko errealitate osoa eskuratzetik izan. Halere, Gasteizko Justizia Sailak emandako datuen arabera, funtzionarioen planfilla osatzen duten langile finkoen artean ez dago langile elebidunik. Horietatik euskararen ezagutzarik altuena duena 7. urratsean dago.

Horretaz gain, 2001-2002 lan urte judizialean, adin txikiko epaitegietako 8 langile aritzen dira euskara ikasten. Horietako hiru funtzionario finkoak dira.

#### **Nafarroako Foru Komunitatea**

Nafarroako adin txikikoen zigor epaitegian ez dago langile elebidunik.

#### **5. Adin Txikikoen Erantzukizun Penal arauzkotzeko 5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa. Azterketa laburra**

Legearen azterketa hainbat ikuspuntutatik egin badaiteke ere, honetakoan hizkuntz eskubideen aldetik egingo dugu.

### 5.1. Legearen zioen adierazpena

Legearen Zioen adierazpenaren atalean Legearen funtsa bera izan daitekeena aurkituko dugu, oso kontuan hartzekoa. Adierazpenaren 1.2. artikulua barruko pasarte batek dioenez:

*"...ha de primar, como elemento determinante del procedimiento y de las medidas que se adopten, el superior interés del menor,..."*.

Zioen adierazpenaren atalaren barruan azaltzen denari erreparatuta, Lege Organiko horrek **zenbait printzipio orokor** hartu ditu ardatz. Ildo horretatik, **prozedurak**, formari dagokionez, zigor izaera (edo izaera penala) badu ere, edukiari (materiari) dagokionez, izaera zehatzaile-hezitzaile garbia dauka, Konstituzio eskubideen errespetutik datozen berme guztien eta adin txikikoaren interesaren betebeharrak bereziki onarpen zehatza, besteak beste.

Legeak ondoko ideia hanpatzen du adin txikikoen zuzenbide penalean, prozeduraren eta hartuko diren neurrien arteko elementu funtsezkoetatik: adin txikikoaren interesik gorenak du lehentasuna. Eta interes hori zehazteko, zientzia juridikoetatik at dauden talde profesionalak azpimarratzen ditu Legeak.

**Legearen ezarpena** ere biltzen du aipatu tituluak: behetik, hamalau urteko muga, eta goitik, hemezortzi urtekoa; nahiz eta

hemezortzitik gorakoei eta hogeita bat baino gutxiagokoei ere ezar dakiekeen, epaileak hala ebazten badu. Hala ere, horrelako kasuetan baldintza bereziak aintzat hartzen dira, besteak beste, egitateen larritasuna eta izaera, egilearen ingurune pertsonalak, heldutasun maila, ea. 18-21 urte artekoek lege horren ondorioetarako "gazteak" izena hartuko dute.

**Epaileak jarritako neurrien betearazpena**, Autonomia Erkidegoetako adin txikikoen erreforma eta babeserako entitate publikoei dagokie, beti ere adin txikikoen epailearen kontrolpean.

Neurriei dagokienez, banan-banan aztertzea merezi badu ere, azpimarratzekoa da Legeak 'amonestazio' delako neurriaren inguruan dioena: Epaileak, epaitegiko egoitzan eta ekitaldi bakar batean, modu zehatz eta argian adierazi egin behar dio adin txikikoari egindakoa zergatik den gizarte mailan onartezina, harentzat eta biktimarentzat egitate haiek ekarri dituzten ondorioak azalduko dizkio, bai eta etorkizunerako gomendioak esango ere. Ikusten den bezala, epailearen eta adin txikikoaren arteko harremanak eta komunikazioak modu erabat zuzenean behar dutela izan proposatzen du Legeak.

*Zioen adierazpena* eremua amaitzeko, azken zioak (hogeita laugarrenak) dioena azaldu behar da: Lege Organikoa garatzeko argitaratuko den Arautegian, zehatzago arautuko dira Legean modu arinean adierazi diren neurriek kontutan hartu beharreko printzipio zientifiko eta irizpide hezitzaileak.

"Por último procede poner de manifiesto que los principios científicos y los criterios educativos a que han de responder cada una de las medidas, aquí sucintamente expuestos, se habrán de regular más extensamente en el Reglamento que en su día se dicte en desarrollo de la presente Ley Orgánica"

## **5.2. Lehenengo titulua**

Legearen artikulua zehatzei dagokienez, honakoak dira azpimarragarriak:

### **5.2.1. Seigarren artikulua: "Ministerio Fiskalaren eskuhartzeaz".**

*"Corresponde al Ministerio Fiscal la defensa de los derechos que a los menores reconocen las leyes, así como la vigilancia de las actuaciones que deban efectuarse en su interés y la observancia de las garantías del procedimiento, para lo cual dirigirán personalmente la investigación de los hechos y ordenará que la policía judicial practique las actuaciones necesarias para la comprobación de aquellos y de la participación del menor en los mismos, impulsando el procedimiento"*

## **5.3. Bigarren titulua**

### **5.3.1. Zazpigarren artikulua: Adin txikikoei ezarri dakizkieken neurrien azaltzea**

Artikulu horretan, adin txikikoei ezargarri zaizkien neurriak zerrendatu dira eta edukia bere osotasunean interesgarria bada ere, azpimarragarria da neurrien bidez saiaturiko dela Legea (eta Legearen bidez Justizia Administrazioa, eta azken finean, Estatua bera), adin txikikoarengan eragiten. Horregatik, atal horrek berebiziko garrantzia izan dezake.

**Bi atal** nagusi ditu: batetik, neurrien deskripzioa egiten da, hau da zeintzu diren aplikagarri diren neurriak eta, bestetik, neurri horiek ezarritakoan, **nork betearaziko** dituen. Azken finean, neurriak bete daitezten, langile-funtzionario-tekniko batzuk daude, eta une horretan ere, adin txikikoarekiko harremana eta komunikazioa oinarritzkoa izango da, berriro ere hizkuntzaren garrantzia nabarmen agerri dela.

## **5.4. Hirugarren titulua: Prozeduraren izapidetzeaz**

### **5.4.1. Hamazazpigarren artikulua: Adin txikikoen atxiloketaz.**

Halaxe dio lehenengo puntuaren hasieran:

*"Las autoridades y funcionarios que intervengan en la detención de un menor deberán practicarla en la forma que menos perjudique a éste y estarán obligados a informarle, en un lenguaje claro y comprensible y de forma inmediata, de los hechos que se le imputan, de las razones de su detención y de los derechos que le asisten, ..."*

Bigarren puntuak ondorengoa agertzen du:

*"Toda declaración del detenido, se llevará a cabo en presencia de su letrado y de aquellos que ejerzan la patria potestad, tutela o guarda del menor — de hecho o de derecho—, salvo que, en este último caso, las circunstancias aconsejen lo contrario. En defecto de estos últimos la declaración se llevará a cabo en presencia del Ministerio Fiscal, representado por persona distinta del instructor del expediente."*

Bi puntu horietan, adin txikikoa atxilotu deneko unea bera eta ondorengo pausoak zuzen-zuzenean arautzen dira. Horretan, atxilotetan esku hartuko duten autoritate zein funtzionarioek berebiziko garrantzia hartzen dute. Alegia, atxiloketa nola egingo den asmatu ezin badaiteke, argi dago Euskal Autonomia Erkidegoan gehienetan Ertzaintzak egingo duela eta Nafarroan, Foruzaingoak. Baina ezin uka, Polizia Nazionalak edota Guardia Zibilak esku har dezaketela, bai eta tokian tokiko Udaltzaingoak ere.

Beraz, hizkuntz eskubideen bermea une horretan bertan has dadin, aginte agente horiek elebidunak beharko lukete izan. Beraz, adin txikikoa, adibidez, *in fraganti* atxilotu badute, lehen unetik, kalte gutxien sor diezaiokeen eran izan beharko du. Hori dela eta euskalduna bada, eta gazteak hala nahiko balu, euskaraz egin beharko zaio, kaltea ahalik eta txikiena izateko.

Zalantzarik balego, legeak berak dio adin txikikoarentzat hizkuntza garbi eta ulergarriaz eta berehala hainbat gauza esan beharko zaiola (egotzi zaizkion egitateak eta abar). Beraz, lege urraketa nabarmena gertatuko da, baldin eta adin txikiko euskaldun atxilotu berri bati, euskaraz egitea galarazten bazaio. Onartuta dagoen eskubidea da, euskararen ofizialtasuna aitortua den eremuetan bederen, herritarrak administrazioarekiko harremanetan hizkuntza aukeratzeko eskubidea duela.

Hemen, atxiloketa batek lekarkeenaz ohartu beharko genuke. Ez du zertan izan beti, baina autoritate agenteak atxilotuko dutenaren bila doazenean, gehienetan, bi elementu dira aintzat hartzekoak: tentsioa eta azkar ibili beharra. Horrek guztiak (praxian) atxiloketak bortitzak izatea eragiten du, hots, modu zakarrak eta tratu txarrak erabiltzea. Beraz, autoritate agenteei eskatu beharreko zuhurtasuna eta diligenziak oharrarazi beharko genituzke, izan ere, atxilotzeko unean, agenteak hori egiteko modua besterik ez duelako bere esku. Atxilotzeko unean poliziak agindu bat dauka, eta hura bete besterik ez du egin behar. Hori betetzeko ardura eta arreta berezia eskatu behar zaio. Eskatu ez ezik, bermearazi eta galdatu ere bai.

Horregatik, hizkuntzaren eremuan, atxilotu edo atxilotuko dutenarekin arretatsu jokatu behar dute Justizia Administrazioak zein horren mendekoek, hain zuzen ere, arestian aipatutako modu egokiak bermatu ahal izateko.

Artikulu horren bigarren puntuak atxilotuaren deklarazioa arautzen du. Lehenengo atalean aipatutakoarekin batera, deklarazioa une funtsezkoa izango da prozeduran, eta oinarritzotzat hartu beharko da Ministerio Fiskalak eta epaileak berak adin txikikoarekin komunikazio zuzena, berehalakoa eta tragarrik gabekoa izatea.

Itzulpenak ezin ordezkari dezake Legeak berak horren modu argi eta garbian eskatzen duena: kalte gutxien eragingo dion eran atxilotu beharko dute adin txikikoa, eta egozten zaionaren, atxilotua izateko arrazoen eta dagokion eskubideen berri hizkuntza ARGI ETA ULERGARRIAN egitera BEHARTUTA daude. Hots, hori egin ezean, hizkuntz eskubideak urratzeaz gain, legea bera ere urratuko dute.

Hamazazpigarren artikuluak badauka azpimarratzeko beste ideiarik. Horrela, hirugarren puntuan, atxilotze garaiaz ondokoa dio:

*Mientras dure la detención los menores deberán hallarse custodiados en dependencias adecuadas y separadas de las que se utilicen para los mayores de edad y recibirán los cuidados, protección y asistencia social psicología, médica y física que requieran, habida cuenta de su edad, sexo y características individuales"*

Atxilotuak gordetzeko tokian tokiko egoitzek profesional elebidunak ere izan beharko dituzte sorospen psikikoak, fisikoak edota medikoak emateko.

Eta, norbanakoaren ezaugarriez ari garela, sexua eta adina ez ezik, hizkuntza ere aintzat hartuko dela ohartu behar dugu.

#### **5.4.2. Hogeita bigarren artikulua: Espedientearen hasiera emateaz.**

Adin txikikoak une horretatik izango dituen eskubideak zerrendatzen dira.

**22.1.a)** puntuan honako hau aipatzen da:

*"Ser informado por el Juez, el Ministerio Fiscal o agente de policía de los derechos que le asisten"*

**22.1.d)** puntuak ondokoa dio:

*"Ser oído por el Juez o Tribunal antes de adoptar cualquier resolución que le concierna personalmente"*

**22.1.e)** puntuak zera agertzen du:

*"La asistencia afectiva y psicológica en cualquier estado y grado de procedimiento,..."*

**22.1.f)** puntuak:

*"La asistencia de los servicios del equipo técnico adscrito al Juzgado de Menores"*

#### **5.4.3. Hogeita hirugarren artikulua: Ministeritza Fiskalaren instrukzio jarduna**

Artikulu horrek adin txikikoaren interesen alde egin behar duen Ministerio Fiskalaren figura du ardatz, alegia, legez egin beharreko eskuhartzearen nondik norakoak. Ministerio Fiskala adin txikikoarekin harreman zuzena izan behar duen ordezkaria da. Hizkuntz eskubidearen ikuspuntutik, oso garrantzitsua da figura hori elebiduna izatea, hasiera-hasieratik bera izango

baiza adin txikikoaren egoeraren berme-emailea eta "konfiantzako" ordezkaria.

Justizia Administrazioan eta hizkuntz eskubideei dagokienez, Ministerio Fiskalak, bere eginkizuna arreta handiz aztertzekoa bada ere, euskararen ofizialtasuna eta adin txikikoaren babes lana uztartu nahi baditu, legez dagokion bezala, Euskal Herriko epaitegietan ordezkari elebidunak beharko dituela eskatu beharko zaio.

#### **5.4.4. Hogeita zazpigarren artikulua: Talde teknikoaren txostena**

#### **5.5. Laugarren titulua: Entzute garaiaz**

##### **5.5.1. Hogeita hamaseigarren artikulua: Adin txikikoaren adostasunaz edo konformidadeaz.**

- 1.-El Juez de Menores informará al menor expedientado, en un lenguaje comprensible y adaptado a su edad de las medidas solicitadas por el Ministerio Fiscal en su escrito de alegaciones, así como de los hechos y de la causa en que se funden*
- 2.-El juez seguidamente preguntará al menor si se declara autor de los hechos...."*

##### **5.5.2. Hogeita hamazazpigarren artikulua: entzuteaz**

*"Cuando proceda la celebración de la audiencia el Juez invitará al Ministerio Fiscal y al letrado del menor a que manifiesten lo que tengan por conveniente sobre la práctica de nuevas pruebas o sobre vulneración de*



algún derecho fundamental en la tramitación del procedimiento o en su caso les pondrá de manifiesto la posibilidad de aplicar una distinta calificación o una distinta medida de las que hubiera solicitado. Seguidamente el juez acordará la continuación de la audiencia, el Juez resolverá en la sentencia sobre los extremos planteados.

2.- Seguidamente, se iniciará la práctica de la prueba propuesta y admitida y la que, previa declaración de su pertinencia, ofrezcan las partes para su práctica en el acto oyéndose asimismo al equipo técnico sobre las circunstancias del menor. A continuación, el Juez oír al Ministerio Fiscal y al letrado del menor sobre la valoración de la prueba, su calificación jurídica y la procedencia de las medidas propuestas; sobre este último punto se oír también al equipo técnico. Por último, el Juez oír al menor, dejando la causa vista para sentencia."

### **5.5.3. Hogeita hemeratzigarren artikulua: Epaiaren edukiaz eta erregistroaz**

"1.- La sentencia contendrá todos los requisitos previstos en la vigente Ley Orgánica del Poder Judicial y en ella valorando las pruebas practicadas las razones expuestas por el Ministerio Fiscal y por el letrado del menor y lo manifestado en su caso por este tomando en consideración las circunstancias y gravedad de los hechos, así como todos los datos debatidos sobre la personalidad, situación, necesidades y entorno familiar

y social del menor y la edad de éste en el momento de dictar sentencia, resolverá sobre las mendidas propuestas con indicación expresa de su contenido duración y objetivos a alcanzar con las mismas, y será motivada consignando expresamente los hechos que se declaren probados y los medios probatorios de los que resulte convicción judicial. También podrá ser anticipado oralmente el fallo al término de las sesiones de la audiencia sin perjuicio de su documentación con arreglo al artículo 248.3 de la citada Ley Orgánica del Poder Judicial

2.- El juez al redactar la sentencia procurará expresar sus razonamientos en un lenguaje claro y comprensible para la edad del menor"

Dena dela, arestian esan bezala, Lege osoan dagoen filosofia da aintzat hartu beharrekoa, hau da, adin txikikoaren interes nagusiaren babes berezia eskatzen duena.

Ministerio Fiskalaz arestian aritu bagara ere, nabarmendu beharra dago Legeak berau jartzen duela instrukzioaren gidari (ikus 23. art.). Beraz, funtsezkoa da Fiskaltzaren elebiduntzea kontuan hartzea.

Horrekin batera, lege berri horretan, sekulako garrantzia hartzen du talde teknikoak egin beharreko lanak (beraien txostenak indar handia du epaileak adin txikikoarekiko zein neurri hartuko duen erabakitzerakoan). Talde tekniko horrek hainbat hezitzaile, psikologo eta teknikari biltzen ditu. Horiek

guztiak, azken finean, adin txikikoaren inguruan ariko diren pertsonak dira, are gehiago, adin txikikoarekin hartu-eman zuzena izango dute haren bizitzaren une zail eta larri horietan. Horregatik, bereziki zorrotzak behar dugu izan langile horiekin. Hizkuntz eskubideen bidea luzea da adin txikikoa Justizia Administrazioan sartzen denetik, eta aldiro zaindu beharrekoa da berau urratua izan ez dadin.

Beste ardatza, atxiloteta bera egiten duen kidego polizialaren lana eta jarrera izango da (17.1 art.). Dударik ez, moduak zaindu eta oinarrizko eskubideak errespetatu egin beharko zaizkio adin txikikoari, beste edonori bezala noski, baina modu berezian, halaxe baitio Legeak. Bestalde, kontuan hartu behar da adin txikikoak, atxilotu eta ondoko lehen uneak, latzenak agian, kidego horren eskuetan igaroko dituela. Beraz, kidego horiek ere hizkuntzarekin eta atxilotuaren hizkuntz eskubideekin arreta berezia izan beharko dute.

Lege horren arabera, praxian, 7. artikuluan agertzen den bezala, epaileak adin txikikoa zentro batean sarrarazteko neurriren bat hartu badu, zentro berezi horietako langileria osoa da kontuan hartzekoa. Kidego polizialaren (Ertzaintzaren, Foruzaingoaren, Guardia Zibilaren, Polizia Nazionalaren edo beste kidego baten) lanak ere garrantzia izango du atxilotu edo zentroratua leku batetik bestera eramatean, epaitegira zein beste edonora dela.

Adin txikikoekiko harremanean zein eskubideez informatzeko momentuan, bereziki, garrantzitsuena da adin

txikikoarekin epaileak (bai eta idazkari judizialak ere) duen gertutasuna, Legeak hala eskaturik. Eginkizun horiek betetzeko epaileak eta idazkari judizialak elebidun izan beharrak azterketa sakona merezi du.

## **6. Adin txikikoen legearen erreforma.**

2000. urteko abenduaren 22ko 7/2000 Lege Organikoak, 5/2000 Lege Organikoaren aldaketa batzuk ekarri zituen, terrorismo delituen inguruan, Kode Penalean egindako aldaketen ondorioz. Erreforma horrek terrorismoaren aurkako legediaren indartzea zuen helburu eta adin txikikoengan ezarririk zeuden berme prozesalen gainean eragina izan zuen.

Aipatu erreforma horren bidez, Kode Penaleko 571 eta 580 artikuluek arautzen dituzten terrorismo delituekiko eskuduntza, adin txikikoei dagokienean, Entzutegi Nazionalako Adin Txikikoen Epaitegi Zentralaren esku utzi dute. Horrek eragin zuzena izango du, aurreko atalean aipatutako adin txikikoen eskubideen gainean, izan ere, prozedura horiek Entzutegi Nazionalera eramateak urrats guztiak gaztelania hutsez egingo direla esan nahi baitu.

Halaberean, adin txikikoak atxilotzen dituzten kasuetan, kidego polizialek adin txikiko horiek Madrilgo Entzutegi Nazionalaren esku uztea dakar.

Azkenik, azpimarratzekoa litzateke lege aldaketak atxiloketa, atxiloketa prebentibo, kautelazko zentroratze edota epai ondorengo zentroratzearen inguruan dioena:

*"Se llevarán a cabo en los establecimientos y con el control del personal especializado que el Gobierno ponga a disposición de la Audiencia Nacional, en su caso mediante convenio con las Comunidades Autónomas"*

Orain artean gertatutako kasuetan atxiloketa prebentiboak bai eta kautelazko zentroratzeak, Madrilgo zentroetan egin dira, eta horrek hizkuntz eskubideen gainean eragina du. Lehen edo ama hizkuntza euskara duten adin txikikoak bere ingurune sozial eta familiarrekotik aldentzeaz gain, hizkuntz komunitatefik aldentzen dira. Halaber, ingurune gaztelaniadun batean daudelarik, hizkuntz eskubideen egikaritzea ezinezkoa izaten zaie.

#### 7. Adin txikiko zigor epaitegien eta sistema judicial espainiarraren eraentza: iruzkin laburra hizkuntzari dagokionez

Adin txikikoen Legeak, bere **azken hirugarren xedapenean**, legea ezartzeko langileriaren alorrean eman beharreko erreformak aipatzen ditu.

Izan ere, Gobernuak, Justizia Ministerioaren bidez, adin txikikoen epaitegi planta eta karrera judizialeko zein fiskaleko plantilla egokitzeko beharrezkoak diren xedapenak ezarriko

dituela dio Legeak (azken hirugarren xedapena, **lehen artikulua**).

**Bigarren artikuluan**, adin txikiko epaileen plazak karrera judizialeko kide diren magistratuek bete behar dituztela adierazten du Legeak.

**Hirugarren eta laugarren artikuluen** arabera, Gobernuak, Justizia Ministerioaren bidez edota, eskuduntza badute, Autonomia Erkidegoek beraien kontseilaritzen bidez, funtzionarioen plantilla egokitu beharko dute, adin txikiko epaitegi zein fiskaltzak legea betetzeko adierazitako beharrei erantzutearren. Halaber, epaitegi zein fiskaltza bakoitzari dagokion talde teknikoaren kopurua eta plantilla ezarriko dituzte. Gauza bera egin beharko dute Polizia Judizialeko Brigadako Adin Txikiko taldeko kideei dagokienez.

Halaberean, azken laugarren xedapenak dioenez, Botere Judizialeko Kontseilu Orokorrak (BJKO aurrerantzean) eta Justizia Ministerioak, beraien eskuduntzei dagokienez, adin txikikoen arloan espezialistak izango diren karrera judizialeko zein fiskaleko kideak osatzeari ekingo diote.

Halere, egokitzapen horiek egiterakoan, hizkuntza koofizialen egoera ez da ezein kasutan kontuan hartzen.

Era berean, BJKOak eta Justizia Ministerioak karrera judizialeko zein fiskaleko formakuntzari ekingo diotela agertzen

du Legeak. Horietan ere, aipatu espezializazioan ez da hizkuntz ezagutza kontuan hartzen.

Botere Judizialeko Lege Organikoak (BJLOa aurrerantzean), oro har, epaile zein magistratuen hizkuntza autonomikoen ezagutza soilik meritu gisa baloratzen du (341. artikulua). Gaur egun, *Auzitegi Nagusiak 1995eko apirilaren 29an* emandako epaia dela medio, *1/1995 Arautegiak, Karrera Judizialari buruzkoak*, 110. artikuluan ondokoa dio: Hizkuntza koofizialak dituzten erkidegoetako postuak betetzerako lehiaketetan, epaile kategoria dutenentzat hizkuntza autonomikoen ezagutza urte beteko antzinakotasunarekin parekatuko da (horren baliokidea izango da), magistratuen kasurako bi urte eta organo kolegiatueterako hiru urte. Beraz, epaile edo magistratu izateko ezein barrutitan ez da euskara ezagutzarik eskatzen.

Halaberean, Ministerio Fiskalaren estatutuek hizkuntza koofizialen ezagutzari buruz ez du inolako aipamenik egiten.

Justizia Administrazioaren langilerari dagokionez, gogoratu beharra dugu langile horien izaera nazionala dela. Kidego Nazionalekoak, BJLOren 454.1 artikulua araberak, Justizia Administrazioako langileria osatzen duten idazkari judizial, mediku forentse, ofizial, laguntzaille eta agente judizial bai eta legez epaile zein epaitegiak laguntzeko sor daitezkeen kidegoetako langileak dira. Egun, Kidego Nazionaleko kide izateak autonomia erkidegoetako hizkuntza ofizialak ezagutu beharrik ez izatea dakar.

Horren haritik, BJLOaren 471. artikulua ondokoa dio

*"En los concursos para la provisión de plazas en el territorio de aquellas Comunidades Autónomas que tengan una lengua oficial propia, se valorará como mérito el conocimiento de ésta en los términos que se establecerán reglamentariamente"*

Arautegi bidezko garapena 429/1988 eta 249/1996 Errege Dekretuen bidez egin da. 429/1988 Errege Dekretuak, apirilaren 29koak, Idazkari Judizialen kidegoaren araudi organikoa onartu zuen bere 33.7 artikuluan. Horretan dioenez:

*"En los concursos para provisión de vacantes de aquellas comunidades autónomas que tengan lengua oficial propia, el conocimiento oral y escrito de aquella debidamente acreditado por medio de certificación oficial, supondrá un reconocimiento a estos solos efectos de seis años de antigüedad además de los que tuviera el funcionario"*

Auzitegi Gorenak, 1995eko azaroaren 7an, neurri hori gehiegikeria nabarmena dela deliberatu zuen, eta beraz, egun, autonomia erkidegoetako hizkuntza ofizialen ezagutzak ez du baliorik, ez eta meritu gisa ere.

249/1996 Errege Dekretuak, otsailaren 16koak, Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden ofizial, laguntzaille zein agenteen kidegoen araudia onartu zuen. Aipatutakoaren

kontuan, hizkuntza koofizialen ezagutza lanpostu hutsak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko kasuez gain, barne promozioko lehiaketa mugatuko kasuetarako ere merituz gisa baloratzea azaltzen du.

Kasu horietan guztietan, hizkuntza ofizial berezkoa duten autonomia erkidegoetako lanpostuen betetzea azaltzen denean, lekualdatze lehiaketa bidez, erkidego horretako hizkuntzaren ezagutzak gehienez ere 6 puntuko balioa izango du; hau da, 6 urteko antzinkotasunaren pare jarri dute.

Bestalde, *Eskualdaketetarako Bitariko Batzordeak* 1996eko otsailaren 16an lorturiko akordioa onartu zuen *60/1996 Errege Dekretuan* oinarriturik, Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako hizkuntza normalkuntzarako neurriak finkatzen dituen *117/2001 Dekretua*, ekainaren 26koa, onartu zuen. Dekretu hori txosten honetan aztertu beharreko gaia ez bada ere, esan beharrekoa da Gobernu Zentralak Auzitegi Konstituzionalera helegin duela.

Horretaz gain, gogoratu behar dugu badirela Justizia Administrazioan eta, espreski, adin txikikoen epaitegietan lan kontratatuaren izaera duten lanpostuak (talde teknikoa osatzen duten psikologo eta gizarte hezitzaileak, hain zuzen ere). Kasu horietan, orain lanean diren talde teknikoko kideei ere ez zaie euskararen ezagutza eskatzen, eta datuen arabera, ez dago ziurtatuta herrialdeetan talde tekniko elebidunik egotea.

2001eko abenduan Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak, psikologo eta gizarte hezitzaileen lan poltsa osatzeko deialdiak egin zituen. Deialdi horietan lehiakideen betebeharren artean ez da euskararen ezagutza jaso, soilik hautaketa prozesuaren garapenean hartu dute kontuan. Hautaketa prozesu horretan euskara maila neurtzeko proba bat dago.

## 8. Ondorioak

1.- Adin Txikikoen Legeak, bere Zioen adierazpen atalean azaltzen duen moduan, formari dagokionez zigor izaera badu ere, edukari erreparatuz gero, **Legeak izaera zehatzaile-hezitzaile garbia** dauka, besteak beste. Legeak ez du helburu errepresiborik, prebentziozkoa baizik; eta neurriak ere horretara daude zuzenduta, adin txikikoaren interesik goren bilatzen baitu. Horregatik, Ministerio Fiskalak legezkotasuna defendatu behar badu, prozesu horretan **adin txikikoen interesak babestu** behar ditu. Hori horrela, adin txikikoaren ezagutza sakona izateko talde teknikoaren laguntza izango du eta horrek adin txikikoaren familiarterako egoera zein egoera soziala aztertu beharko ditu.

Horretarako, prozesuan zehar **adin txikikoari babes** psikologiko eta sozial **beharrezkoa** eskainiko zaio, adinaren zein norbanako ezaugarrien arabera.

Helburu horiek kontuan harturik, adin txikikoaren interesik goren babestea ezinbestekoa da. Horretarako, adin txikikoaren egoera psikosozialaren berri, ahal den zehatzena, erdietsi behar da eta hori lortzearen berarengana inolako bitartekorik gabe heldu behar da.

2.- Hori horrela izanik, egun Hego Euskal Herrian kokaturiko **adin txikikoen zigor epaitegiak ez dituztela** adin

txikikoen **hizkuntz eskubideak** inolaz ere **bermatzen**, eta horrek legearen zio eta helburuak berak kaltetzen ditu.

3.- Adin txikikoen hizkuntz **eskubideak bermatu ahal izateko ezinbestekoa** da:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean kokaturiko adin txikiko epaitegietak **magistratuak** eta **idazkariak elebidunak** izatea.

b) Adin txikiko **zigor epaitegi bakoitzeko** Ministerio Fiskaleko Adin Txikikoen Sekzio bakoitzean euskaraz jardun nahi duten adin txikikoez arduratuko den, **gutxienik, fiskal elebidun bat** ezartzea.

c) Adin txikikoen zigor epaitegi bakoitzean ezarritako psikologo eta gizarte hezitzaileen taldean euskaraz jardun nahi duten **adin txikikoez arduratzeko gai izanen diren langileak** ziurtatzea.

d) Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean kokaturiko **polizia kidegoek** atxilotetetan euskaraz jardun nahi duten adin txikikoez arduratuko diren **langile elebidunak izendatzea**

e) Adin txikiko zigor epaitegietan euskaraz burutu nahi diren **prozedurak izapidetzeko aski agente, laguntzaile zein ofizial elebidun bermatzea**.

f) Adin txikiko epaitegiek ezartzen dituzten neurriak, kautelazkoak zein behin betikoak, hizkuntz eskubideak bermatuz egikaritu behar dira. Horretarako, autonomia erkidegoek ezinbestekoa izango dute programen, instituzioen zein zerbitzuen antolaketan, sortze zuzendaritzan eta kudeaketarako arauetan hizkuntz eskubideen bermea kontuan izatea, horiei baitagokie neurrien egikaritzea.

4.- 7/2000 Lege Organikoak, abenduaren 22koak egokitu zuen, terrorismo delituei dagokienez, adin txikikoen erantzukizun penala arautzen zuen 5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa. Egokitzapen horiek adin txikiko elebidunen hizkuntz eskubideen urratzea larriagotzen dute, adin txikikoen kasuen prozedurak Entzutegi Nazionalean burutu baitira. Halaberean, aipatu egokitzapenak, kasu horietan aplika daitezkeen kautelazko zentroratze neurrietan edota zigorretan ere, Euskal Herritik kanpo gertatzen direnean, adin txikikoen hizkuntz eskubideen urraketa dakarte. Ezinbestekoa da, beraz, legeak aipaturiko kasu horietan adin txikikoen hizkuntz eskubideak bermatuko dituzten epaitegiek burutzea eta gauza bera neurriei dagokienez. Horretarako, Entzutegi Nazionaleko Adin Txikikoen Epaitegiaren izaera berezitua ezabatzea beharrezkoa da.

*Iruñean, 2002ko urtarrilean*